

KANALAK

Kanalak gure produktua bezeroei iristeko modua dira eta hauek ere bezeroekin egongo den harremana zehaztuko dute. Kanalen barruan bi mota aurki ditzakegu: kanal zuzenak eta zeharkakoak.

Kanal zuzen bat, adibidez, internet bidezko salmenta da. Gure kasuan, hau oso garrantzitsua izango da gure zerbitzua eskaintzerako orduan, hau internet bidez zabalduko dugulako gehienbat. Honetarako, aplikazio eta web orri bat sortuko ditugu eta bietan guri buruzko informazio guztia azalduko da.

Zeharkako kanalak, berriz, denda fisikoak izango lirateke. Kasu honetan, printzipioz, dendarik ez sortzea pentsatu dugu eta gure zerbitzuak internetetik bakarrik eskaintzea. Hala ere, enpresak ondo funtzionatzen duela ikusten badugu, hainbat denda irekitzea ere planteatu dezakegu, bezeroei gure produktua eskuratzeko errezitasuna emango geniekelako.

Gure ondasun eta zerbitzuak ezagutzera emateko, hasteko iragarkiak erabiliko ditugu. Baina ez edozein modutan, gure bezero motari iritsiko zaion moduan, hau da, Instagram edo gazteek erabiltzen duten beste aplikazio batekin hitz egingo dugu gure iragarkiak bertan agertzeko.

Egin dezakegun beste zerbaite abeslariarekin hitz egitea da gure zerbitzuari buruz hitz egiteko eta eskaintzen dugun aukera bere jarraitzileei azaltzeko.

Azkenik, bezeroak erakartzeko pentsatu dugun azken modua sarrerak saltzen jarduten diren enpresa horiekin hitz egitea da, eta kontzerturako sarrerak amaitu eta segidan haien web orriak gure aukera agertzea eta erosleak zuzenean gure web orri bidalzea.

Bestalde, erosketari dagokionez, gure zerbitzua lehen aldiz erbiltzean bi gauza erosi beharko dituzte, kontzerturako sarrera eta errelitate birtualeko betaurrekoak.

Printzipioz, guk salduko ditugun betaurrekoak bakarrik erabili ahal izatea pentsatu dugu eta ez edozein, baina beranduago aldaketa egiteko prest gaude. Beste aldaketa posible bat da hasiera baten betaurrekoak erosteko aukera bakarrik emango dugula, baina enpresak arrakasta lortzen badu, betaurrekoak alokatu ahal izatea martxan jarriko dugu.

Hala ere, gure zerbitzua erabiltzen duen lehen aldia ez den bezero batek ez ditu betaurrekoak berriro erosi beharko, sarrera bakarrik baizik, eta kontzerturako ordurako pasahitza baten bidez konektatu ahal izango ditu betaurrekoak.

Bezeroek gure balio proposamenari buruz jakin nahi duten guztia jakiteko, web orrian edo aplikazioan bilatu dezake informazioa, horietan guri buruzko guztia agertuko delako. Gainera, guri galderak egiteko txoko bat izango dute eta erantzunak web orrira igoko ditugu. Hala ere, galderak pribatuki egitea nahiago dutenez gure posta elektronikoaren helbidea edukiko dute, eta erantzun hauek ez ditugu igoko.

Beraz, laburbilduz, bezeroak guregana iristeko modu errezena aplikazioa jeistea edo web orrian sartzea izango da, han behar duten guztia aurkituko dutelako.